

LEHEN HEZKUNTZA - JOLASAK

Jeronimok dio

Gaia (zer landu)	Gorputz atalak, ekintza errazak, espazio kontzeptuak (eskuina, ezkerra, aurrera,...)
Adina	HH, LH1 eta LH2
Jarduera	Ikasleak lerroan jarriko ditugu. Ondoren, zozketa egingo da Jeronimo izango den ikaslea aukeratzeko. Beste ikasleen aurrean jarriko da eta agindu errazak emango dizkie. Aginduak ematerakoan beti egitura berdina erabili beharko du: - <i>Jeronimok dio: ezkerreko eskua gora, Jeronimok dio: oin puntetan salto egin, Jeronimok dio: sudurrarekin lurra ukitu...</i>
Oharrak	HHn sartuko diren aldagaiak sinpleagoak izango dira: gorputz atal bat eta ekintza bat. LHn aldagai hauek zailagoak izango dira: gorputz atal bat, ekintza bat eta espazio kontzeptu bat... Beste aldaera bat: Jeronimok ekintza esaten du, baina despistatzeko ez du "Jeronimok dio" esaten.

Piratak eta presoak

Gaia (zer landu)	Espazio kontzeptuak
Adina	LH2 eta LH3
Materiala	Zirkuito erakargarri bat prestatzeko behar diren materialak: sokak, uztaiak, makilak, oihalak,...

Jarduera	Gelakideak bi taldetan banatuko dira: piratak eta presoak. Piratek marinelen itsasontzia erasoko dute eta marinelak preso hartuko dituzte. Pirata bakoitza bere presoaz arduratuko da. Ondoren, beren kobazulora eraman behar dituzte, baina non dagoen ikus ez dezaten begiak estaliko dizkiete. Presoek, piratek prestatutako ibilbidea egin beharko dute kobazulora ailegatu arte. Horretarako piratak arau desberdinak eman beharko dizkio: <i>salto aurrera, makurtu, katuka ibili...</i>
Oharrak	Jolas honi konpetibitate pixka bat eman nahi bazaio, bikote bakoitzari ibilbidea egiten zenbat kostatzen zaion kontrolatuko da.

Ikusi makusi

Non dago	<i>Hik-hasi</i> CDa
Gaia (zer landu)	Gelan lantzen ari garen hiztegia
Adina	LH2
Materiala	Kanta: "Ikusi makusi, makusi zer ikusi ikusten ikusten ikusten...._____"
Jarduera	Gelako ikasle batek objektu bat pentsatu behar du. Ondoren kanta kantatuko zaio eta, hutsunea dagoen tokian, pentsatu duen objektuaren hasierako silaba esan beharko du. Gainontzeko ikasleek, txandaka, silaba horrekin hasten den objektu bana esan beharko dute asmatu arte. Asmatzen duenak beste objektu bat pentsatu beharko du.
Oharrak	Jolasa barneratua dutenean, hasierako silaba izan beharrean, amaierakoa izan daiteke, jolasa pixka bat zailagoa egiteko.

Kitto hitz (Skatergoris)

Gaia (zer landu)	Guk aukeratutako gaiekin bat datorren hiztegia
Adina	LH2 eta LH3
Materiala	5 zutabe eta 5 lerroekin dituen taula bana.
Jarduera	<p>Ikasle bakoitzari jolasaren taula emango zaio. Ondoren, zutabe bakoitzaren gainean gai desberdinak idatziko dituzte, guztiek gai berdinak. Gero, irakasleak hizki bat esango du eta 2 minututan gai bakoitzeko hitz bat idatzi beharko dute ahalik eta azkarren. Bi minutuak pasatutakoan, idatzitakoa komunean jarriko da eta puntuak banatuko dira: <i>ongi dagoen hitz bakoitzari 5 puntu; idatzitako hitza ez badu beste inork idatzi beste 5 puntu.</i></p> <p>Honela arituko dira zenbait hizki erabiliz. Jolasa amaitutakoan, puntu guztiak batuko dira. Puntu gehien duenak irabaziko du.</p>

Nork dauka?

Gaia (zer landu)	Lantzen ari garen gaiaren hiztegia.
Adina	LH1 eta LH2
Materiala	Poltsa bat, objektu desberdinen txartelak (adinaren arabera marrazkiak edo objektuen izenak izan daitezke).
Jarduera	<p>Haurrak korruan jarriko dira. Txarteletan agertzen dena arbelean idatziko dugu, objektu bakoitza nolakoa eta zertarako den guztion artean aztertzeko. Aurretik prestatu dugun poltsa pasako dute barruko txartel bana hartuz. Haur bat korru erdira aterako da eta tokatu zaion objektuaren ezaugarri bat esan beharko du. Korruan daudenek asmatu beharko dute. Asmatzen duenak erdira aterako da eta gauza bera egin beharko du. Asmatutako txartela berriro poltsan sartuko da.</p>

Oharrak	Objektuak izendatzerakoan esaldi egitura berdina erabiliko da: <i>Zuk daukazun txartela kotxearena da, zuk daukazun txartela aldizkariarena da...</i>
---------	--

Begira, begira	
Non dago	<i>Urtxintxa 3 urte CD1, 1. gaia</i>
Gaia (zer landu)	Barrura-kanpora
Adina	HH
Materiala	Uztaiak (bat ikasle bakoitzarentzako) Kantaren hitza: Begira begira, uztai biribila, zertarako, zertarako? Denok jolasteko Barrura iup iup kanpora iup iup (bis) Begira begira,....
Jarduera	Haur bakoitzari uztai bat ematen zaio eta uztaiaren ondoan zutik egon beharko du. Kanta hasten denean, mugimendu desberdinak egin beharko ditu: <ul style="list-style-type: none"> - <i>Begira begira</i> (hatza begiaren parean jarrita) - <i>uztai biribila</i> (hatz berdinarekin uztaiaren forma egin airean) - <i>Zertarako?</i> (eskuak alboetara eta barruko alde goruntz) - <i>Zertarako?</i> (eskuak gerrira) - <i>Denok jolasteko</i>(eskuak gerrian mugimendua alde batera eta bestera eginez) - <i>Barrura iup-iup</i> (2 hankekin 2 salto uztai barrura) - <i>Kanpora iup-iup</i> (2 hankekin 2 salto uztai kanpora)
Oharrak	Korru handian uztairik gabe ere egin daiteke, denak mugimendu berdinak eginez. Taldeak korru barrura salto egingo du uztai izango balitz bezala.

Gure pertsonaiak

Gaia (zer landu)	Edozein ipuinetan, kondairatan, kulturatan , istoriotan... azaltzen diren pertsonaiak eta hauen ezaugarriak.
Adina	LH2 eta LH3
Jarduera	Zozketa bidez gelakide bat aterako da. Pertsonaia ezagun bat esango zaio, eta mimika bidez imitatu beharko du norbaitek asmatu arte. Asmatzen duenak hurrengo pertsonaia imitatuko du.

Maite zaitut

Gaia (zer landu)	-Pertsonen ezaugarriak, fisikoak eta psikologikoak - <i>Zergatik</i> galdera eta-lako erantzuna
Adina	LH (lehen zikloan orokorragoa eta goi zikloan zailagoa, mailaren arabera)
Materiala	Zenbait uztai gelan sakabanatzeko
Jarduera	<p>Haur bakoitza uztai baten barruan kokatuko da. Zozketa bidez, ikasle bati uztai kenduko zaio eta hori hasiko da. Gelakide batengana hurbildu eta elkarrizketa hau errepikatu beharko du.</p> <p style="text-align: center;">-<i>Maite zaitut</i> -<i>Zergatik?</i> -.....-lako</p> <p>Hutsune horretan gelakidearen ezaugarri bat esan behar du; ezaugarri bera duten guztiek altxatu behar dute eta tokiz aldatu. Uztairik gabe gelditzen denaren txanda izango da hurrena.</p>

Baketue	
Gaia (zer landu)	Mementoan lantzen ari garen edozein gairekin lotu daiteke
Adina	LH
Jarduera	<p>Ipuin bat asmatuko da, eta ipuin horren hiru mementoei mugimenduak lotuko zaizkie. Mugimendu horiek errazak izan behar dute. Mugimendu bakoitzari kanta zati bat dagokio:</p> <p><i>-Baketue tuepapa, baketue tuepa (bis)</i> <i>-Tutue tutue papa, tutue tutuepa (bis)</i> <i>-Iene, iene, iene, ie(bis)</i></p> <p>Azkenean, hiru mugimenduak eta kanta zatiak lotuko dira, eta kanta bat eta dantza bat sortuko da. Egoera desberdin askotan landu daitekenez, dantza desberdinak aterako zaizkigu, nahiz eta kanta beti berdina izan.</p>
Oharrak	<p>LH1: ipuina irakasleak asmatuko du.</p> <p>LH2: ipuina ikasleek asmatuko dute irakaslearen laguntzarekin.</p> <p>LH3: ipuina ikasleek bakarrik asmatuko dute.</p>

Kolare-kolare	
Gaia (zer landu)	Kolareak
Adina	HH eta LH1
Jarduera	Haur batek beteko du. Haur horrek kolore bat esango du, eta besteek kolore hori duen zerbait ukitu beharko dute. Bitartean, betetzen duenak norbait harrapatzen saiatu behar du.
Oharrak	Kolareak, hasiera batean, irakasleak esan ditzake.

Uztai barruan zer?

Gaia (zer landu)	Objektuen izenak
Adina	HH eta LH1
Materiala	Erabiliko ditugun objektuak eta uztai bat
Jarduera	Haurrak korruan eseriko dira, eta erdian uztai bat jarriko da. Ondoren, objektu batzuk utziko ditugu uztaiaren barruan; objektuak sartu ahala objektu horien izenak esango ditugu. Gelako haur bat kanpora aterako da, eta gelan gelditu direnek uztai barruko objektu bat hartu eta ezkutatuko dute. Kanpoan dagoen haurra sartzen denean, zein objektu falta den esan beharko du
Oharrak	<ol style="list-style-type: none"> 1. aldaera: LHn uztai erabili beharrean gela erabili daiteke, eta barruko objektua gelako edozein material izan daiteke. 2. aldaera: arbelan marrazki handi bat egin, eta marraztutako zerbait ezabatu.

Kutxan sartu

Gaia (zer landu)	Gelako objektuen izenak eta ezaugarriak
Adina	HH eta LH1
Materiala	Gelako materialak eta kutxa bat
Jarduera	Talde txikietan egiteko jolasa da. Haur bat gelatik aterako da, eta gelditzen direnen artean gelako objektu bat aukeratu eta kutxa baten barruan sartuko dute. Ondoren, haurra sartuko da eta gelakide bakoitzak objektuaren ezaugarri bat esango dio. Denek ezaugarria esan dutenean, objektua zein den asmatu beharko du. Kutxa ireki eta asmatu duen edo ez ikusiko da.

Salto batez barrura

Gaia (zer landu)	Pertsonen ezaugarriak
Adina	HH eta LH1
Materiala	Koloretako zinta isolatzailea
Jarduera	<p>Lurrean zintarekin korru bat egingo da. Haur guztiak zutik jarriko dira korru horren inguruan. Ikasle batek ezaugarri bat esango du:</p> <p>-..... <i>duenak salto batez barrura.</i></p> <p>Ezaugarri hori duten haur guztiak salto egin beharko dute korru barrura. Ikasle guztiak barruan daudenean, berriro kanpora aterako dira, eta ekintza errepikatuko da beste ezaugarri bat esanez.</p>
Oharrak	Hasieran eta HHn batez ere, irakasleak esango ditu ezaugarriak.

Formen diktaketa

Non dago	Liburua: <i>Ideas para divertir a los niños / Catherine Gourlat</i>
Gaia (zer landu)	Formak, koloreak eta espazio kontzeptuak
Adina	LH
Materiala	Diktaketak eskatzen dituen formak edo objektuak
Jarduera	<p>Irakasleak haur bakoitzari diktaketan agertuko diren objektuak emango dizkio (borobil berdea, karratu gorria, hiruki horia, laukizuzen beltza...). Diktaketan objektuak non kokatu behar dituzten esango du. Amaieran, ikasle guztiak era berean kokaturik izan beharko dituzte objektuak.</p> <p><i>Adibidea: karratu gorriaren gainean borobil berdea, borobil berdearen azpian hiruki horia, karratu gorriaren azpian laukizuzen beltza...</i></p>
Oharrak	Objektuekin egin beharrean orri batean taula bat erabiliz egin daiteke: <i>hirugarren ilaran bosgarren zutabea...</i>

Paisaia misterioitsua

Non dago	Liburua: <i>Ideas para divertir a los niños / Catherine Gourlat</i>
Gaia (zer landu)	Espazio kontzeptuak eta hiztegia (<i>zuhaitza, etxea, eguzkia, lainoa, mendia, neska, mutila ...</i>)
Adina	LH
Materiala	Arkatza, koloretako margoak eta orri bat
Jarduera	<p>Ikasleei landu nahi diren kontzeptuak eta kontzeptu horien kokapena ahoz emango zaizkie. Haurrek orri zurian kokatu beharko dituzte.</p> <p>Adibidea: <i>Marratzu etxe bat orriaren erdian. Etxearen atetik bide bat egin orriaren eskuinaldeko beheko izkinara. Bidearen amaieran hiru lore egin. Orriaren ezkerreko izkinan katu bat dago eta orriaren eskuinean goiko izkinan txori bat. Etxe gainean laino handi bat dago. Lainoak eguzkiaren behealdea gordetzen du. Katuaren eskuinean zuhaitz bat dago eta etxearen teilaturaino iristen da...</i></p>

Sarea

Non dago	Liburua: <i>Ideas para divertir a los niños / Catherine Gourlat</i>
Adina	LH
Materiala	Kasetea eta musika
Jarduera	<p>Ikasle kopuruaren erdiak korru bat egingo du eskutik hartuta (sarea). Beste ikasle guztiak arrainak izango dira. Korruan, besoak ongi luzaturik, sarea musikaren erritmoan mugituko da. Bitartean, arrainak saretik sartzen eta irtetzen ibiliko dira, bakoitza bere erritmoan. Musika gelditzen denean, sarearen barruan daudenak preso geldituko dira eta korruan jarriko dira sarea handituz. Horrela arituko dira arrain guztiak preso hartu arte. Amaitzean rola alda daitezke. Hasieran sarean zeudenak arrainak izango dira eta alderantziz.</p>

Bip-bip	
Non dago	Liburua: <i>Ideas para divertir a los niños / Catherine Goulat</i>
Gaia (zer landu)	Lehen, gero eta bitartean.
Adina	LH
Materiala	Testu bat
Jarduera	<p>Testuan landu behar diren hitzen ordeztan <i>bip-bip</i> erabiliko da. Haurrak banaka edo taldean jar daitezke. Irakasleak arbelean idatziko dituzten landu behar diren hitzak, eta ikasleek hauek erabili beharko dituzte <i>bip-bip</i> horien ordeztan.</p> <p>Adibidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Izaskunek jaka jantzi du kanpora atera baino bip-bip.</i> - <i>Igor gosaltzen ari zen bip-bip, irratia entzuten ari zen.</i> - ...